

Mila pertsona inguruk eskatu du Baionan Etxebesteren askatasuna

Preso guztien amnistia eskatu zen atzo arratsaldeko manifestaldian

Mila pertsona inguruk parte hartu zuten atzo, Errepresioaren Kontrako Batzordeak eta Ahaideak antolatutako manifestaldian. Presoen Astearen barneko ekitaldian «preso guztien amnistia» eta batez ere «Ttote Etxebesteren askatasuna» aldarrikatu zen.

HUR GOROSTIAGA / BAIONA

Manifestaldia arratsaldeko bostak t'erdia aldera abiatu zen Baionako Euskaldunen plazatik. Aintzinean «Amnistia Orain» zioen pankarta zihoan eta atzetik, gaurregun Frantziako presondegiatan dauden euskal preso argazkiak. Ondoren mila pertsona inguru, ainitzek maskara zuri bat aurpegian zutela, «presoak askatzen ez diren bitartean denak hobendun girela» aldarrikatzeko.

Euskaldunen plazatik Thiers karrikaruntz zuzendu zen eta bertatik Sous-Prefektura aintzina herriko etxetik pasa ondoren. Sous-Prefektura aintzinean, Giza Eskubideen Elkarteko ordezkariak, Ttote Etxebesteren amak idatzitako agiri bat irakurri zuen. Idatzian Ttote Etxebestek bizi duen «egoera zinez krudela» azaltzen zen. «Ttote presondegiaren sartu dutenetik 14 kilo galdu ditu bost hilabeteetan eta orain ez du indarrik ezertarako, edozoin momentutan alditxartzen delarik». Etxebesteren amak «lehen bait lehen libratzea» eskatu zuen «berant izan baino lehen». Ondoren Errefuxiatu eta Presoen



Ttote Etxebestek duen gaixotasuna dela eta eskatu dute bere askatasuna.

Sustengu Komiteak hartu zuen hitza eta «frantses zein espainol kartzeletan dauden 600 preso baino gehiagoen egoera «zinez kezagarria» salatu zuten. «Badakigu frantses presondegiatan Jean Groix eta Peio Marinelarena hil direla; badakigu ere Gurutze lantzik eta Xabier Kalparsorok espainol polizien eskuetan beren azken hatsa eman behar izan zutela. Eta hor dugu ere Ttote Etxebestek jasaiten duen egoera, frantses gobernuaren joko zikinaren frogagarri. Jakin dezatela gure herriaren askatasuna eta batasuna lortu arte gogor atxikiko dugula».

Segidan manifestaldiak Baionako herriko etxeruntz jarraitu zuen. Bertan manifestaldiaren antolatzaile zen Errepresioaren Kontrako Batzordeak hartu zuen hitza. «Aurten oraino, presoen sustengu aste hau, preso diren euskal militanteen alde gure el-

kartasunaren oraino fermukiago erakusteko, galdera batzuen egiteko eta zertan gauden ikusteko ere balia dezagun. Euskal populuaren onarpena eta bere etorkizunaren jabegoa emanen dion egitura baten xutik ezartzea galdatzen dugu. Euskararen ofizialtasuna, ekonomia politika ezberdin baten finkatzea, turisma orozaleatasuna baztertuz eta mozkin eremuak sustatuz. Instituzione mailan egitura baten finkatzea, euskal populuak bere oraiko eta geroko izaiteak bere gain har ditzan. Eta azkenik behar beharrezkoa da euskal preso politiko guzientzat amnistia osoa eta baldintzarik gabekoa».

Manifestaldia «Eusko Guda-riak» kantatuz amaitu zen. Orduan Saint Sprit zubiaren azpian eseri ziren manifestariak eta Poliziak desegin egin zituen. Zenbait liskar sortu zen orduan polizia eta manifestarien artean.

EAJrekin dituen harremanak «ez aldatzea» espero du Gonzalezek

DONOSTIA


Felipe Gonzalezek eta Jose Maria Aznarrek izandako bileraren ostean, PSOEek EAJrekin dituen harremanak «ez aldatzea» espero du Gonzalezek. Espainiako lehendakariaren eta Aznarren artean asteazkenean izandako bilerak, PSOE eta PP alderdien arteko harremanei tentsioa kentzeko balio izan duela adierazi zuen atzo sozialisten buruak.

Hori dela eta, PSOEek alderdi politiko ezberdinekin hasi berri duen elkarriketa prozesutik ahalik eta lorpen positiboenak lortu nahi duela adierazi zuen Gonzalezek. Era berean, PSOE eta PPren arteko elkarriketen aurka Xabier Arzalluzek «konkubinato politikoari» buruz egin dako adierazpenei ez zien erantzun nahi izan.

Gonzalezen esanetan, «oposizioko alderdi nagusierekin elkarriketatzea guztiz beharrezkoa da krisi garai honetan eta demokrazia bultzatu nahi dugunean. Honelako egoeratan oposizioko alderdi nagusiaz gain, beste alderdiak ere kontuan hartu beharrezkoak dira».

Joseba Zubia Lehendakari-zakontseilariak era berean, Madrilgo Gobernuari urte hauetan esperientzia autonomikoa, «elkarriketarako jarrera eta itunak», falta izan zaiola esan zuen. Honela erantzun zion Xabier Gurrutxaga EUEko bozeramaileak Jaurilaritzarentzat ustez Estatu-tuaren aurka doazen lege organiko eta oinarrikoak zeintzuk diren galdetzean.

Zubiaren esanetan, «bide judizialak ez ditu dauzkagun



Felipe Gonzalez.

arazoak konpontzen». «Estatutua Estatuarekin hitzartutako testu politikoa da, bere garapena ezin liteke bide judizialek aurrera eraman, bai zik eta Estatutua egin zen era berean, elkarriketa eta itun bidez alegia».

Bestalde, Jesus Egiguren Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusiak Beasaingo Ezker Tokiaren inagurazioan esan zuenez, «Euskadik boterean behar ditu sozialistak, PSOE langileen interesak ordezkatzeko eta babesten dituen alderdia baita». Horrekin batera, ETArekin izan daitekeen elkarriketa posiblearen aurrean, «izatekotan, Ajuria Eneko Mahaiko alderdi guztiekin egin beharko litzateke, eta HB bere ekintzekin automarginatu egiten da».

PSE-EE alderdia «autonomista erradikala, beti euskal autonomiaren alde puntan dabilen alderdia eta transferentzien arloan oso exigentea» dela adierazi zuen Egigurenek.

Donostiako Lizeo Frantsesari su eman zioten ostiral gauean

DONOSTIA

Donostiako Lizeo Frantsesari su eman zioten ostiral gaueko bederatzia t'erdia inguruan aurpegia estalita zeramaten bi lagunak. Donostiako suhiltzaileek emandako datuen arabera, ikastetxeko garbitzaileak lana bukatu eta bertatik ateratzerako unean giltzak lapurtu zizkieten. Gasolinaz busti zuten behe solairuko hainbat gela eta eskailerak, eta jarraian kanpin-gasak bota eta su eman zioten. Leherketa ugari izan zen barruan eta su garrek Lizeo Frantseseko behe solairua kiskali zuten.

Sutea eragin zuten une berean ikastetxeko administratzailea eta bere emaztea zeuden, Lizeoko hirugarren solairuan bizi baitira. Inolako zauririk ez zuten izan bi lagun hauek, Lizeoaren aldame-

neko eraikuntzako teilatutik kalera ateratzea lortu baitzuten. Suhiltzaileek ordubete eman behar izan zuten sutea itzaltzeko eta beraien adierazpenen arabera, suteak eragindako kalte materialak ugariak izan dira, lehen solairua ia guztiz kiskalita gelditu baitzen.

Anoetako (Gipuzkoa) Renault kontzesionarioan ere beste sute bat eragin zuten hainbat ezezagunek ostiral gauean. Kristalak hautsi eta gasolinaz busti ondoren, su eman zioten. Bi auto guztiz erreta gelditu ziren erasoaren ostean.

Bilboko San Inazio auzoko Posta bulegoan, etxean egindako lehergailu bat indargabetu zuen Polizia Nazionalak. Pasai Antxon bestalde, «Carnicas Txukuna» enpresako kamioi batek kalte materialak izan zituen beste sute baten ondorioz.



Suak kalte handiak eragin zituen Lizeo Frantsesean.

EFE

Goirizelaia: «Belloch bere aurrekoen markak hausten ari da»

BILBO

Jone Goirizelaia HBren Mahai Nazionalako kideak gogor kritikatu zuen atzo Juan Alberto Belloch Espainiako Justizia ministroaren lana. Goirizelaia aburuz, «Belloch bere aurretik kargu hori izan duten guztien markak hausten ari da. Karguan 100 egun eskas diharduen arren, epe horretan hiru pertsona hil dira komisaldegiatan, beste bost heriotza izan dira Langraizko espetxean, eta tortura eta tratatu txarren lekukotzak nabarmen aregotu dira».

Bere iritziz, «boterera igo aurretik ustez gizabanako eta taldeen eskubideen defenditzaile zenari bere lehengo ideiak oro ahortzi egin zaizkio».